

CD-ROM euskarrian:

PSIS URDIAIN-ALTSASU

- Memoria
- Normativa
- Estudio hidraulico
- Incidencia ambiental
- Informe de alegaciones
- PLANOAK

Proiektuaren ezaugarriak

Eskualderako poligonoa da. Proiektuaren ezaugarrien gainean zera dio:

<< MEMORIA. 3. Antecedentes. El área industrial prevista es de **carácter comarcal** (...) 4. Objeto y Justificación del Plan Sectorial. El objeto de este PSIS es definir la situación actual de la zona de estudio y las actuaciones que deben ser llevadas a cabo para el establecimiento, en dicha zona, de un área industrial que permita la implantación de empresas que generen actividad en la comarca, sin olvidar el desahogo de las actividades económicas de los núcleos urbanos cercanos. Como **área industrial que acoge actividades de incidencia comarcal, se justifica la tramitación vía PSIS¹** >>

Kokapena eta dimentsioa.

<<MEMORIA. 6. Descripción del Espacio de Intervención. La implantación del área industrial se propone en los términos municipales de Altsasu/Alsasua y Urdiain, al Sureste del núcleo urbano de Altsasu/Alsasua y al noroeste del núcleo urbano de Urdiain, en una zona agrícola, con proximidad de infraestructuras que dotan al área de atractivo para industrias con mucha dependencia energética y de transporte. La propiedad de los terrenos es básicamente privada, y muy repartida, con arrendamientos de fincas en algunos casos, totalizando según medición de planos **937.697 m²** de terreno objeto de este Plan Sectorial (**647.139 m²** en Urdiain y **290.558 m²** en **Altsasu/Alsasua**). >>

Oharrak:

¹ Informazioa eskuratzeko momentuan, kezka handiz esan behar dugu Nafarroako Gobernuak sustatutako proiektu honek "UPS-ren" izendapena jasotzen duelako ez dela jendaurrean erakusgai jarri Sakanako inongo udalerritan, ezta Urdiainen eta Altsasun ere.

Informazio falta horregatik kaltetuta atera gara azken aldian Urdiainen ere, eta horren adibide da udaleko idazkariak ziurtatu duena erantsitako agirian: 2008ko urrian administrazioarekiko auzi-helegiteak aurkezteko epea ireki zela ez zen herrian ohartarazi.

Zuei helarazten dizuegun informazioa (CDan dihoakizuen) eskuratzeko Iruñeko Nafarroako Gobernuaren departamentuetara jo behar izan dugu.

Nondik nora doa Gobernuaren diseinu politiko eta administratibo berria Nafarroako lurraldea antolatzeko garaian?

Deigarria da azken urteetan Nafarroako Gobernuak hirigintza arloan duen jarrera: neurriak guztion onerako direlakoan herri bakoitzari bere subiranotasuna kendu nahi zaio.

Nondik nora doaz politikoen asmoak? Nafarroako herriak kontzentratu nahi dituzte. Gure kasuan, urdiaindarrok erdi mailako neurria izango lukeen hirian bildu nahi gaituzte, Altsasuren inguruan (Olazti–Altsasu–Urdiain). Antolaketa horretan, herri bakoitzak bere erabakitzeko ahalmena galduko luke hiri nagusiaren auzune bihurtuz; horrela, Nafarroako Gobernuak ez luke hainbeste arazo administratibo izango bere erabakiak goitik behera ezartzerako orduan. Herri txikiek gure nortasuna, independentzia eta ahotsa galduko genuke, eta hori oso larria da.

Beharrezkoa ikusten dugu Sakanako Mankomunitatea erakunde bezala, bailarako alde sozio-ekonomikoa eta kulturala planifikatu eta koordinatzeko. Herri bakoitzak ezin die eguneroko arazoei bakarrik aurre egin, denon elkartasuna ezinbestekoa da, baina hori bai, guztioi informatu eta kontsultatu ondoren.

Sakanaren lurralde antolamenduan, poligonoen kokapenerako aukera batzuk:

A: Poligonoak udalherri guztietan.

B: Poligono haundiagoak azpieskualdeetan.

C: Makro-poligonoa Burundan, NASUINSAREN proiektua.

